

**Faktura elektronikoaren arloko berrikuntzak hornitzaileentzat: pertsona juridikoak behartuta egongo dira Bergarako Udalari eta bere organismo autonomo eta societate publikora faktura elektronikoak bidaltzera.**

**Novedades para los proveedores en materia de factura electrónica: Las personas jurídicas estarán obligadas a enviar facturas electrónicas al Ayuntamiento de Bergara, sus organismos autónomos y su sociedad pública.**

1. Faktura elektronikoei buruzko araudia aplikatuz, **2015eko urtarrilaren 15etik aurrera abian jarri da “Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorra” (FSPOe)**. Puntu orokorraren bidez, hornitzaileek eta kontratistek Gipuzkoako Herri Administrazioei bidaltzen dizkien faktura elektronikoak jasoko dira.

1. . En aplicación de una nueva normativa en materia de facturas electrónicas, **a partir del 15 de enero de 2015 ha entrado en funcionamiento el denominado “Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa” (PGEFe)**. A través de este Punto General se recibirán las facturas electrónicas que remitan los proveedores y contratistas a la Administración Pública guipuzcoana.

2. **Sarrera puntu orokorrak Gipuzkoako administrazio publiko hauei emango die zerbitzua:**

2. **Este Punto General de Entrada prestará servicio a diferentes administraciones públicas de Gipuzkoa:**

- GFA.
- GFAREN menpeko organismo autonomoak (Uliazpi eta Kabia).
- Atxikitzen diren Gipuzkoako udalak
- Bestelako organismo publikoak.

- la DFG
- los organismos autónomos dependiente de la DFG, Uliazpi y Kabia
- los ayuntamientos de Gipuzkoa que se adhieran.
- otros organismos públicos

3. Sarrera puntu orokorraren ezaugarriak eta eremua 2014ko abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduan jasota daude (GAO, 234 zk., 2014-12-9).

3. Las características y ámbito del PGEFe están definidas por la Orden Foral nº 632/2014 de 1 de diciembre (B.O.G. nº 234 de 9/12/14).

4. **Begarako Udala, bere organismo autonomoak eta sozietate publikoa “Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorrera” atxikitu da 2015 eko urtarrilaren 15ean onarturiko Alkatetza Dekretuaren bitartez.**

4. **El Ayuntamiento de Bergara, sus organismos autónomos y su sociedad pública se han adherido a este “ Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa” mediante Decreto de Alcaldía aprobado el 15 de enero del 2015**



Bertan hornitzaileek Bergarako Udalari, bere organismo autonomo eta sozietate publikoari egiten dizkioten faktura elektronikoak jasotzeko prozedura arautzen da.

Pertsona juridiko mota hauek egongo dira behartuta (1):

- a) Sozietate anonimoak.
- b) Erantzukizun mugatuko sozietateak.
- c) Espainiar nazionalitatea ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridiko gabeko entitateak.
- d) Zerga araudiak ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateen sukurtsalak eta establezimendu iraunkorrak.
- e) Aldi baterako enpresa elkarteak.
- f) Interes ekonomiko taldeak, interes ekonomikoko Europako taldeak, pentsio funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

Faktura elektronikoak bidaltzeko betebeharraren salbuespenak:

- **5.000 euro bitarteko fakturak paperean bidali ahal izango dira.** Arau honen **salbuespenak** ondorengo bi apartatuetan jasota daude.
- Fakturaren bat formatu elektronikoan aurkeztera behartuta egon diren hornitzaileak, aurrerantzean, behartuta egongo dira ondasun entrega eta zerbitzu

En el mismo se regula el procedimiento de recepción de facturas electrónicas que los proveedores emitan al Ayuntamiento de Bergara, sus organismos autónomos y su sociedad pública.

Están obligadas los siguientes tipos de personas jurídicas (1):

- a) Sociedades anónimas;
- b) Sociedades de responsabilidad limitada;
- c) Personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica que carezcan de nacionalidad española;
- d) Establecimientos permanentes y sucursales de entidades no residentes en territorio español en los términos que establece la normativa tributaria;
- e) Uniones temporales de empresas;
- f) Agrupaciones de interés económico, Agrupaciones de interés económico europea, Fondos de Pensiones, Fondos de capital riesgo, Fondos de inversiones, Fondos de utilización de activos, Fondos de regularización del mercado hipotecario, Fondos de titulización hipotecaria o Fondos de garantía de inversiones.

Excepciones a la obligación de enviar facturas electrónicas:

- **Podrán enviarse en papel las facturas por importe de hasta 5.000 euros.** Esta regla tiene las **salvedades** que se detallan en los dos apartados siguientes.
- Los proveedores que hayan estado obligados a presentar en formato electrónico alguna factura, en adelante, estarán obligados al uso de la factura electrónica en



prestazio guztietan faktura elektronikoa erabiltzera.

- Kontratazio prozeduren esleipendunak behartuta egongo dira faktura elektronikoa egitera eta igortzera, baldin eta esleipen zenbatekoa 5.000 eurotik gorakoa bada, alde batera utzita kasu bakoitzean fakturatzeko den zenbatekoa.

#### **5. Udalei eta sarrera puntu orokorrari atxikitako gainerako entitateei faktura elektronikoa igortzera behartuak.**

Arau nagusiari jarraituz, herri administrazioei faktura elektronikoa aurkeztu behar dizkiete goian (1) aipatutako kasuen barruko nortasun juridikoa duten hornitzaileek.

Udalek eta sarrera puntu orokorrari atxikitako entitateek eskumena dute aurretik zerrendatutako pertsona juridikoei eragiten dien fakturak igortzeko betebeharrak orokorraren salbuzpenak arautzeko. Sarrera puntu orokorraren web orrian, atxikitako entitate bakoitzaren erregulazioaren berri ematen da.

6. Nahiz eta derrigorrezkoa ez izan autonomoek, profesionalak eta enpresek faktura elektronikorik aurkeztea aurreko paragrafoetan jasota ez dauden kasuetan, haiek guztiek fakturak formatu elektronikoa bidali ahal izango dituzte, hala nahi badute.

7. Gipuzkoako Foru Aldundiko faktura elektronikoen puntu orokorraren web gunean (<https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntuua>), jasota egongo dira puntu orokorrari atxikitako entitateen zerrenda, araudi aplikagarria, argibide gehiago eta puntu orokorrari eta fakturazio elektronikoi buruzko ohiko kontsultak, bai eta faktura elektronikoa egiteko programaren doako deskarga ere

todas las entregas de bienes y prestaciones de servicios.

- Los adjudicatarios de procedimientos de contratación estarán obligados a expedir y remitir factura electrónica cuando el importe de adjudicación sea superior a 5.000 euros, con independencia del importe que se facture en cada caso.

#### **5. Obligados a remitir facturas electrónicas a los Ayuntamientos y demás entidades adheridas al PGEFe.**

La norma general establece que están obligados a presentar facturas electrónicas a las administraciones públicas los proveedores cuya personalidad jurídica esté dentro de los supuestos citados más arriba (1).

Los ayuntamientos y las entidades adheridas al PGEFe son competentes para regular, dentro del marco de la normativa aplicable, las excepciones a la obligación general de enviar facturas electrónicas que afecta a las personas jurídicas enumeradas anteriormente. En la página web del PGEFe se informa de la regulación que sobre esta cuestión aplica cada una de las entidades adheridas.

6. Debe recalarse que, si bien no es obligatoria la remisión de facturas electrónicas por autónomos, profesionales, y empresas en aquellos supuestos no comprendidos en los párrafos anteriores, todos ellos podrán remitir sus facturas en formato electrónico si así lo decidieran voluntariamente.

7. En la página web del Punto General (<https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntuua>), incluida en la "Sede electrónica" de la Diputación Foral se presentará la relación de entidades adheridas al PGEFe, la normativa aplicable, información ampliada y consultas frecuentes sobre el PGEFe y la facturación electrónica, así como el acceso para la descarga gratuita del programa de elaboración



(ef4ktur).

de facturas electrónicas ef4ktur.

8. Web berean jakinaraziko da nola egin kontsulta faktura elektronikoen bidalketaz eta faktura elektronikoen puntu orokorraren funtzionamenduz.

8. En esa misma página web se informará acerca de cómo realizar consultas sobre la remisión de facturas electrónicas y funcionamiento del PGEFe.

9. Bergarako Udala, bere organismo autonomoak eta bere udal sozietatearen esparruan, fakturen kontabilitate erregistroa kudeatzea dagokie:

9- En el ámbito del Ayuntamiento de Bergara, sus organismoa autónomos y su sociedad pública les corresponde el registro contable:

**-Begarako Udalarenak:** :  
Kontuhartzailletza zerbitzuari KODEA:  
**L01200744**

**-Ayuntamiento de Bergara:** a su Servicio de Intervención. CODIGO: **L01200744**

**-Begarako Udal Euskalategia:** bere zerbitzu administratiboari. KODEA: **LA0004985**

**-Euskaltegi Municipal de Bergara:** a sus servicios administrativos. CÓDIGO: **LA0004985**

**-Mizpirualde Egoitza:** bere zerbitzu administratiboari. KODEA: **LA0005013**

**-Residencia de Ancianos Mizpirualde:** a sus servicios administrativos. CODIGO: **LA0005013**

**-Begarako Bihargintza 98 SA :**  
kontuhartzailletza zerbitzuari. KODEA  
**LA0005066.**

**-Begarako Bihargintza 98 SA:**a su Servicio de Intervención . CODIGO: **LA0005066.**

Erakunde bakoitzak bere **organo kudeatzailearentzat, unitate izapidetzailearentzat eta kontabilitate buletoarentzak** kode berdina erabiliko du.

Cada entidad utilizará el mismo código tanto para su **órgano gestor, su unidad tramitadora y su oficina contable.**

Bergara , 2015 ko urtarrilaren 27a/ Bergara, a 27 de enero de 2015